

Prentsa oharra

## **Irizar i6S autokar berria 2017. urteko autokarra Espainian**

*Ormaiztegi, 2017ko urtarrilaren 19a*

### **Irizar i6S autokar berriak 2017. urteko Espainiako autokarra saria jaso du.**

Irizarri saria emateko ekitaldia urtarrilaren 18an, asteazkena, izan da Madrilgo Novotel hotelean. Sektoreko enpresaburuek, sektoreko elkarte nagusietako kideek eta erakundeetako ordezkariak parte hartu dute.

Irizarren zazpigarren aldiz jaso du sari hau, eta hirugarren urtez jarraian Irizar i6 eta i8 modeloekin eta autobus %100 elektrikoarekin.

Century, Irizar pb eta Irizar i6ak Historikoki jasotako errekonozimenduaz gain, 2015ean Urteko autobusa saria lortu zuen Irizar i2e %100 elektrikoarekin. 2016an sari bikoitza jaso zuen Irizarrek, Irizar i8ak eta Irizar Taldearen autobus % 100 elektrikoak Urteko Autokarraren Saria eta Espainiako 2016ko Ibilgailu Industrial Ekologikoaren saria jaso baitzituzten.

*"Urte gutxi batzuk atzera egitea nahikoa da Irizar Taldeak izan duen garapen teknologiko eta berrikuntza industrial handia egiaztatzeko. Gaur egun produktu eta soluzio teknologikoen gama zabala eskaintzen duen enpresa bat izatera igaro gara, gure eskaintzan autobus %100 elektrikoak sartuta, bai eta teknologia hibridokoak ere, hiri barruan eta hiri artean zerbitzuak ematen dituzten II klaseko autokarrentzat, ohiko autobusez eta autokarrez aparte. Hori horrela, beraz, bidaiarientzako garraio publikoko segmentu guztiei erantzun ahal diegu, bai garraio diskrezionalean bai garraio publikoan, hiri barruan eta hiri artean ibiltzeko zein ibilbide luzeak egiteko, eta mugikortasun iraunkorraren sektorean liderrak izan gaitzke"* dio Jose Manuel Orcasitas Irizar taldeko Zuzendari Nagusiak.

### **Irizar i6S**

Irizar i6S berriak Irizar pb modelo enblematikoa ordezkatu du, i8aren antzeko ezaugarri estetikoak ditu, eta markaren modelo berrien teknologia barneratzen du. Produktu berriaren garapenaren oinarrian abangoardiako teknologia dago, nortasun propioa duen modelo baten kalitatea, sendotasuna eta fidagarritasuna bezalako kontzeptuen balioa agerian hartzeko.



Aurrealdearen diseinua LED faro berriek definitzen dute, eta horiekin batera dago abiadura kontrolatzeko sistema moldakorraren integrazio trapezoidal eskusiboa. Lerro markatuagoak eta erasokorrangoak, gainazal zurrun zein bigunetan zizailatuta. Hainbat elementu harmonikoki integratuta, hala nola aurreko laino argiak edo sabaiko posizio argiak. Emaitza berrizatu eta deigarria, Irizar i6-aren aurpegi ezaguna ñabartzen eta azpimarratzen duena.

Alboan, tolestura sotil batek optimizazioaren eta kalitate handiaren sentrazioa areagotzen du. Hobetu diren xehetasun eta edergarri modernoak erantsita indartzen den sentrazioa. Atzealdean xehetasun angeluar fin eta modernoak sortzen dira. Efektu globala Irizar i6 berezi-berezia da, indartsuagoa eta dinamikoagoa.

## Teknologia

Full LED argiak ditu barruan zein kanpoan.

Arkitektura multiplexatua eta CAN komunikazio protokoloa, autokarraren elektronika osoa artikulatzeko, diagnosi zerbitzuak eta datuak hartzea ahalbidetzeko OBD konektorearekin eta sistemei nolabaiteko inteligentzia emateko.

Nabarmentzekoak dira, hala berean, gidatzen laguntzeko AEB-LDW sistemak, zeinek ukipen pantaila, kontrola eta HMI kotsola integratzen baitituzte. Bertatik kudeatzen dira entretenimendu eta konfort sistemak.

Beste arlo batzuek bidaiariaren gogobetetzea sendotzen dute: etengailu kapazitibo eskusiboak sabaiko argi difusorean, eta berritasun bat, alegia, airea xurgatzeko sistemak, bai autokarraren sabaian bai azpian, zeinek gidariaren zein bidaiarien klimatizazioaren errendimendua handitzen duten, hurrenez hurren.

Aukeran, Irizarrena eskusiboa den MMI sistema ere badago, sistema guztiak aginte birakari baten bitartez erabiltzeko (joystick), menuetan azkar sartzeko botoiak, eta koloretako 7"-ko ukimen pantaila bat gidariaren ezkerreko aldean.

Horrez gainera, ordea, Irizar i6-a gidatzen duen gidariaren erosotasun sentipena areagotu egiten da, atzeko ispiluen ikusmen optimoarekin eta aire girotuaren irteerak erregulatzeko aukerarekin. Azken finean, gidaria ondo-ondo zaintzeaz ari gara, haren lana errazteaz, ongizatea transmititzeaz, bidaiari guztien segurtasunaren mesedetan.



## Barne ongizatea

Sabaiaren aurreko aldean bereizmen handiko monitore lau handi bat dago, 22"-koa, eta erloju bat eta WC argi seinalea.

Bidea LED argiekin argitzen da ointokietan zein sabaian, bidaiarien sartu-irtenak errazteko. "Soft touch" etengailu kapazitiboak eta irakurtzeko LED argiak ere baditu.. Sabaiko estalgarriak kolore gris argikoak dira, barrualdeari argitasuna emateko.

Maletak eramateko goiko konpartimentuen ezaugarria duten edukiera handia da, eta LED argien ilara batez argituta daude.

Beste ekipamendu eta ezaugarri batzuk dira: 2 m baino gehiagoko barne altuera, eserlekuen arteko tarte handiagoa, gidariarentzako eta bidaiariarentzako ikusmen ezin hobea, distiren aurkako pertsiana elektrikoak, catering ekipamendurako integrazioa, klimaren errendimendu hobea, bisera motako monitore lauak eta neurri eta bereizmen handiagoko monitore zentrala...

Eserleku berrietan erosotasun eta funtzionalitate kontzeptuak lehenetsi dira. Linea ergonomikoagoak bilatu dira eta burua jartzekoak zabalagoak dira. Amaierako emaitza, konforta eta dotoretasuna transmititzen duen eserlekua.

## Segurua, errentagarria eta fidagarria

Markaren gainerako ibilgailu guztiek bezala, Irizar i6S-ak ere R.66.02 segurtasun araudia betetzen du eta sistema modernoena ditu segurtasun aktiboan, egonkortasuna bermatzeko eta aurreikusi gabeko egoeretan arriskuak minimizatzeko.

Muturreko egoeretan, errepidean gainerakoen jokabidea aurreikusi ezin denean, lasaigarria da jakitea Irizar i6S-aren egitura iraulketarekiko eta parez pareko talkarekiko erresistentzia aintzat hartuta diseinatu dela, pisuen banaketa optimizatuta. Eta, gainera, gidariaren lekuaren kontzepzioa, zabalera eta aginteetara iristeko erraztasunagatik, segurtasunaren funtsezko zatia da.

Errentagarritasunari dagokionez markaren bereizgarrietako bat da unitatearen azterketa dinamikoa, eta horrek Irizar i6s segmentuko lider bihurtzen du kontsumoari dagokionez. Konpontzeko eta mantentzeko kostuei dagokionez, ildo horretan, zerbitzu tarteak luzatu egin dira. 100.000 km-raino ibil daiteke olio aldatu gabe eta kate zinematikoko eta karrozeriako ordeko piezen prezioak doitu egin dira.



Horri gehitzen badiogu zerbitzu sareak hedatzeko prozesuan jarraitzen duela, Irizarrek homologatutako tailerrak autobusak dabiltzan lekuetatik ahalik eta gertuen egoteko, Irizar i6S-aren hondar balioa handia izango dela eta, beraz, inbertsioaren itzulera erakargarria izango dela bezeroentzat, edota lehenetsuen artean CO2 isuriak gutxitzea dagoela, zalantzarik gabe baieztatu daiteke Irizar i6-aren alde egitea aukera onena dela.